

KOSTALDEKO GIPUZKERAREN BERRI

Txanka bertsolariaren bitartez

*Bidarte, 1986-X-9
Txillardegi*

Orioko eta Zarauzko euskarak ez dira guztiz gauza bera. Eta artikulu sail honetan Zarautz dugu aztergai (1).

Hala ere, Orioko euskara motaren azterketak argi handia egin dezake Zarauzko eta kostaldeko hizkerari buruz.

Hots, bigarren honetarako, eta Aita Zabala biltzaile porrokatuari esker, badugu lekuko fidagarri bat: *Txanka*. Orion jaioa, mutilzar gelditua, eta gurasoz eta bizilekuz beti oriotar huts egondua, eredu ona izan dakiguke.

Txanka bertsolaria, bestalde, ez da batere aspaldikoa: 1890-1961. Eta beronen obran gaurko hizkera zehazki ageri ez bada ere, aurreko belau-narena bederen soma dezakegu.

Oso urri dira pottoak Txankaren bertsogintzan; eta euskal silaba aztertzeko oinarri sendoa ematen digu, beraz.

Bidenabar, gainerantzean, beti ere zalantzan dauden sintaxi puntuño xumeren bat argitzen saiatuko gara ondoko lerro hauen bidez.

Gure jarraipidea, horrela, hau izango da:

1. Silabaketa kostaldeko gipuzkeraz.
2. Mugagabearen erabilpenaz.

1.1. **Bokale bikoitzen laburketa.**

Kostaldeko gipuzkeraz, eta beti ere lekukotzat aukeratu dugun Txanka bertsolariaren lanen bidez ikus daitekeenez (ikus *Axentxio Txanka Bertsolaria*, Auspoa 59, 1966), aspaldiko bokale bikoitzek bokale *bakarra*

(1) Ikerlan hau, Zarautzi buruzko beste batzurekin batera zen argitaratzekoa.

eman dute Orioko mintzairan; eta Hegoaldeko beste zenbait hizkeratan gertatzen den bezala (Nafarroa garaian, esate baterako) antzinako bikoiztasun horren arrastorik ez dago.

—[al] (= ahal).

akordatutzen al zera, (8), 24 (alegia, 8 silaba, orrialdea).

akordatzen al zera, (7), 20.

al dezuten azkarrena, (8), 59.

—[ari] (= ahari).

gañera ariya (6), 96.

—[aztu] (= ahaztu).

etzaizkit aztu, (5), 33.

neri aztuko (5), 21.

—[len] (= lehen).

guk lengo lege zarrari, (8), 51.

zeñek lenago, (5), 55.

lendabiziko, (5), 22, 24, 56.

len, (1), 81, 26, 28, 136, 135.

lenbizi, (3), 72, 72, 99, 122.

lengo, (2), 26, 30, 96, 138.

—[mai] (= mahai).

maia betia, (5), 79.

ostatuko maiera, (7), 104.

mayian, (3), 140.

—[nastu] (= nahastu).

nastu ote dan, (5), 65.

= *nastua*, (3), 122.

—[txar] (= txahar).

txarrik, (2), 51.

txarrikan, (3), 25.

—[zar] (= zahar).

neska zar bat erten zait, (7), 102.

barku zar erdi, (5), 111.
barku zarra ta, (5), 112.
zarrak aña, (4), 28.
ardi zarraren gibela, (8), 70.
zartu dalako, (5), 31.
zartzera, (3), 37, 44.
bei zar bat aurten, (5), 61.
erropa zarrakin, (6), 98.

1.2. V_1 h V_2 hiato zaharren diptongaketa

Aldakuntza hau gertatu da normalean:

$$V_1 \cdot hV_2 \rightarrow V_1 V_2$$

– **[au]** (= aho).

auko zulua, (5), 39.
bere autik, (4), 130.

– **[bei]** (= behi).

bei asko, (3), 96.
beiak, (2), 28, 39, 104.
beyikan, (5), 39.

– **[bein, bein̄]** (= behin).

bein bear genduben au, (7), 14.
bein ere, (3), 20.
noizik bein, (3), 97.

– **[eun]** (= ehun). Gutxitan. Ikus aurrerago.

– **[loi]** (= lohi).

loi zuluan sartuta, (6), 104.

– **[nai]** (= nahi). Ez beti. Ikus aurregago.

– **[oi]** (= ohi).

oitua zera, (7), 28.
oitura dan bezela, (7), 118.

1.2. 1. Fenomeno bera gertatzen da bokale arteko /r/, /d/ edo /g/ ezabatu denean:

oixen da, (3), 22.

oik aña, (3), 28.

motiboik gabe, (5), 31.

San Pedroi, (3), 22.

arrotzen ai dira, (6), 31.

Joxemaitarrak, (5), 48.

aiskire, (3), 116.

konfesorai aitortu, (8), 109.

birjiñai, (= ari) (3), 109.

/r/ren galera horretan hurbil dago zubereratik.

1.3. Bokale bikoteen ahoskera

Ikus ditzagun bana-bana gerta daitezkeen 20 kasuak; bokalerdien eta bokale osoen arteko ñabardurak oraingo, corpus-aren urriaz, aztertu gabe uzten ditugularik.

— AE

Ez da agertzen.

— AI

Jatorriz diptongo denean, diptongo gisa eta silaba bakar batez ahoskatzen da; eta gauza bera tarteko /h/ edo /d/ desagertua denean.

Adibidez:

naiz kasik iya (= nahiz), (5), 33.

naiz uste arren, (5), 23.

Hala ere, harrigarria da *na.i* silababikoaren maiztasuna.

Egin dezagun lerrokada bikoitz bat:

nai (1)

na.i (2)

eman nai dizke, (5), 30.

naian, (2), 118.

naiago, (2), 119.

galdu nai, (3), 125.

naigabe, (3), 13, 95.

bota nai zuben, (5), 91.

soldata nai du jaso, (7), 102.

nai, (1), 101.

nai dubenak aditu, (8), 50.

nai dubenak, (5), 49.

Oharraraztekoa da, honi buruz, beste gipuzkoar bertsolari batzuk ere “nari” bisilabiko bat erabiltzen dutela garai bertsean.

Normalean, hitz batez, *ai* multzoa diptongatu egiten da, bai jatorrizko kasuetan, bai ondoriozkoetan.

– **AO**

Esana dugunez, kasu bakarrean (*au* = aho) diptongaturik agertzen da normalean.

– **AU**

Ez da agertzen.

114-ko *baraubakiñ* (5 silaba) ulertezina da; 4 silaba espero zitezkeen eta.

– **EA**

ea edo *ia* ahoskaturik ere (*bear* eta *biar*, eman dezagun), bi silaba ditugu beti: *ertzian*, *aitzian*, *beltzian*, *bestiak*, *aldian*, etab.. Hitz batez: ez da diptongaketarik gertatzen.

Bi berezkuntza egin behar dira: Goiherin bezala *-(e)nean* atzizkia, edo antzekoak, *-(e)nen* agertzen dira:

asten naizenên, (5), 116.

Eta, bestetik, /r/ren erozketaz hitz haseran sortzen den *ea* hiatoa, /ja/ silababakar ahoskatzea:

ea.ku.tsi.yo.zu (5), 35.

eaman dute sei bandera, (8), 48.

eamango zitun, (5), 51.

eantzita (3), 51.

Fenomeno hau beste euskalkitan ere gertatzen da, goi-nafarreraz bereziki:

jantzi ≠ *yantzi* (NG, Oiartzun; *jantzi* / *erantzi*).

jan ≠ *yan* (NG, Lakuntza: *jan* / *edan*).

– **EI**

Diptongatu egiten da; baita ondoriozko diptongoa denean ere: *ein* (= egin), *bei* (= begi), etab.

– **EO**

Hiato egiten da.

— **EU**

Normalean *diptongoa* dugu, eta silaba bakar bat, beraz.

Berezkuntza nagusia *e.un* da (= ehun); oraindik ere maiz silaba bitan ahoskatua:

milla bost egun, (5), 113, 114, 115.

milla seiregun, (5), 115.

milla lareun, (5), 107.

milla ta bederatzieun da, (10), 47.

milla bederatzieun eta, (10), 24, 26.

Nahiz batzutan diptongoa aurkitu:

beratzireun da, (5), 54.

bederatzireun, (5), 75.

Maizenik, hitz batez, *e.un* silababikoa dugu.

Hiatoz ere agertzen dira beste bi hitz hauek:

le.un: *mingaña leguna*, (6), 125.

ne.ur.tu: *neurtu ditut*, (5), 36.

Normalean diptongoa dugu; are /g/rekiko forma (*degu*) erabiltzen denean ere:

sobrante deula, (5), 28.

— **IA**

ia bikoteak hiatoa ematen du, are *iya* gisa ere:

Gorostiyako, (5), 15.

Kantabriyak, (4), 19.

Donostiyako, (5), 47.

abiyatutzen, (5), 41.

abiyatzeko, (5), 11. (nahiz *abitu*, bakanka, 104).

Nahiz euskara zaharrean *-ar* morfema markatua izan: *ár*, eta autonomoa; Txankaren ahotan hiatoa sendo agertzen da:

Donostiarren, (5), 34.

Donostiarrak, (5), 43, 48, 52, 56, 77.

Getariarrak, (5), 69, 91, 92, 93.

Getariarrai, (5), 44.

Joera bera agertzen da baita erdaratikako hitzetan ere:

Veneziatik, (5), 109, 112; *Veneziako* (5), 114.

Turkiyatarra, (5), 112.

Edo beste hauetan:

estudiyatzen, (5), 111.

estudiante, (5), 113 (kanta ezagunean ere hiatoz esaten da).

biaje ori, (5), 55; edo *biraje*, (3), 135.

Harrigarriak, agian:

Azpeitiyako eta *Azkoitiyako* formak, 107.

Baina garrantzitsuena agian latinezko esaldia:

per omnia sekula, (7), 106; *om.ni.a* adierazgarri horrekin, latinez *om.nja* entzuten baita.

Hiatorako joera ezin daiteke sakonagoa izan.

– [IE]

Normalean hiatoa dator: *i.e* edo *i.ye*.

Berezkuntza bat: *So.la.be.rrie.ta* (5), erdal esakeraren eraginez segurki.

Erdaratikako mailegu batzuk ez dute duda izpirik uzten:

kontzientziya, (5), 41.

pazientziya, 66, 102, 5 silabatan.

sufiziente, (5), 113.

Erabat erdal ahoskeraren aurka.

soziedadia agertzen da behin, dena dela, diptongoz eta 5 silabatan.

– [IO]

Hemen ere hiatoa sortzen da: *io* edo *ioy*.

Adibiderik onena Orio izena da: *Oriyo*, (3) beti. Baita deklinabidea barrena eta hitz-elkarketan ere:

Oriyoko, 19, 24.

Oriyotarrak, (5), 24, 40, 58, 79.

Ana Mari Etxaidek egokiro azpimarratu duenez (ikus *Castellano y Vasco en el habla de Orio*, 1968; 48 orr.), erdaratikako hitzik normalenak ere iristen ditu joera fonetiko nagusi honek:

meriyo, 19.
desapiyoka, (5), 50.
propiyo esan., 55.
Inazio, (4), 108, 109, 110.
menospreziyo, (5), 114.
estudiyoko, (5), 115.
opiziyo, (4), 125.
Galbario, (4), 131, 131.
periodikuetan, (7), 84.

— **IU**

Corpusean ez dago daturik.

— **OA**

Normalean hiato ematen du, eta *oa* edo *ua* ahoskatzen.

Belareekin, halere, /k, g, j/, oso maiz gertatzen da diptongo goranzkoa.

Joan aditza da lekukorik onena:

ju.an (belarea) (2)

ezin juan gindezke (7), 46.
juan dirade, (5), 49.
balijuake, (5), 51.
guazeneke, (5), 59.
orain guaz esatera, (8), 93.
zijuakiyon, (5), 110.
lasai juango gera, (7), 126.
jartzera guaz bertsoak, (8), 131.
berdeletara juanda, (8), 20.
zijuazela, (5), 41.

jwan (1)

juan giñan, (4), 45.
obe du ez juan, (5), 48.
juan dan urteko, (5), 65, 73.
joateko, (3), 68.
juango litzake, (5), 77.
juan zaizkiyola, (5), 29.
juan ziñezke, (4), 32.
juango zaizkitzu, (5), 37.

Monoptongazioz ere gertatzen da:

ensaiora juna, (6), 86.
jun dan, (2), 34.
jun giñan, (3), 42.

Normalena, dena dela, hiatoa da:

Gipuzkoako txapela, (8), 45.
oker juak (= joak), (4), 84.

egualdera, (5), 109 (= hego aldera, jakina) diptongoa, belareekin batez ere, posible izanik:

Gipuzkuatikan, (5), 42.

lenguan bezela, (5), 30.

— [OE]

Ez dago daturik.

— [OI]

Normalean diptongoa, are bigarrenkaria denean ere:

oixen da, (3), 22 (= horixe da).

motiboik gabe, (5), 31.

— [OU]

Ez dago daturik. Baina diptongoa genuke, ikusiko dugunez.

— [UA]

Hiatoa normalean, *uba* forman eskuarki:

munduban, 21.

neguba, 21.

orduban, 24.

San Juan, (3), 82, 82, 83, 84, 85.

Erdaratikako hitz batzutan, /kwa/ multzoa zegoelarik bereziki, diptongo goranzkoa atxiki du:

kuadrilla, (3), 25, 34, 35, 41, 43, 44, 46, 49, 51, 55, 64, etab.

igual, (2), 121, 90; nahiz batzutan *i.gu.al* ahoskera posible izan eta bide beretik euskal hitz hau:

egualdi, (3), 133, 77, etab.

aguantatzeko, (5), 112.

— [UE]

Era berean, hiatoz ahoskatzen da eskuarki. Honen argigarri onak dira adizkiak: *genduben* (20), *ezkenduben* (20), *dubenik* (22), *dubenak* (37), etab. Era berean: *zubek*, 27.

Erdararikako hitzetan ere, hiatorako joera nagusiturik agertzen zaigu:

– *su.er.te* (3):

ziranian suertatu, (8), 58.

suerte txarra, (5), 63.

suertiaren, (5), 70.

suertia, (4), 79, 116, 119.

suerte, (3), 129.

suertian, (4), 24

Eta zubererazko *sübéрте* delakoa gogoratzen zaigu.

– *kon.tsu.e.lo*, (4), 130.

konsuelua, (5), 55.

– *Ma.nu.el* (3), 27, 56.

Honen arauera, beraz, markatuak dira /we/ ahoskatzen direnak:

– *ne.u.rriz fue.ra.ko*, (6), 63.

– *buel.ta*, (2), 68, 69, 103, 110, 111, 32, 33, 54 (nahiz *bu.el.ta.*, (3), 134)

– *fuer.ti.a* (3), 112.

– **UI**

Ahoskera monosilabikoa datzekio:

deskuidatu, (4), 20.

kuidadorikan, (5), 124 (nahiz *Lu.is* ere agertu, 111).

– **UO**

Monosilabikoa dela soma daiteke, gero ikusiko dugunez.

Eta, horren arauera, eta gipuzkeraz normaltzat eman daitekeenez, taula hau lortzen dugu:

	A	E	I	O	U
A	a	H	D	(D)	D
E	H	e	D	(D)	D
I	H	H	i	H	H
O	H	H	D	o	D
U	H	H	D	H	u

Joera segitzen ez duten hitz bakan batzu badaude; edo-ta noiztenka baizik segitzen ez dutenak: *na.i; e(r)aman, e(r)akutsi, e(r)antzi; e.un, le.un, ne.ur.tu, so.zie.da.de, buel.ta, fuer.te, fue.ra., e.gual.di, kua.dri.lla, i.gual, a.guan.ta.tu;* baita koloka ikusten dugun *joan* hitza: *jo.an, ju.an, juan, jun.* Hots, hitz markatu hauetan nabarmen dira bi maiztasun: *bela-reena eta maileguena.*

1.4. Bokale-bikote berak azentu unitate desberdinen artean

Azentu-unitate desberdinen artean, hiatoa izango dugu *gutxienez* goiko taulan H agertzen den kasuetan. Honen bidez unitateen arteko mugak ezartzeko argia izango dugu.

— [AA]

Oso gutxitan gertatzen da laburketa:

onra aundiyak, (5), 19.
etzanda antxen, (5), 20.
nola antxo, (4), 23.
eztira asko, (5), 41, 64.
kopa artuta, (5), 72.
gustora asko (5), 77.

— [AE]

korrika emen, (5), 14.
inola ezin, (5), 19.
nola etorri, (5), 27.
burla egin, (4), 20.

Eta bide beretik gainerakoetan.

1.4. 1. Interesgarrienak, beraz, hitz barruan *diptongo* ematen duten bikoteak dira:

— [AI]

Hemen *hiato batzu* gertatzen dira, nahiz legerik ezin eman:

nola izaten, (5), 21; baina *nola izaten dan*, (5), 29.
ezta izaten, (5), 41; baina *etzala izango*, (5), 32.

Josepa Iñasi, (6), 14; baina *osaba illobak*, (5), 27.
onela ikusi, (6), 14; baina *onela ikusten*, (5), 82.

Aukera libro dagoela dirudi, hitz barruan diptongatzea beharrezkoa bazen ere. (Horrelako zerbait gertatzen da *na.i / nai* bikotean: *naiz kasik iya*, (5), 33; baina *bota nai zuben*, (5), 91.

– **AÜ**

Hemen ere aukera bide dago:

nola ume, (4), 20.
milla urte, (4), 54, 75.
 baina:
zuk ala usteko, (5), 32.

– **EE**

Normalean laburketarik ez:

uste etzuten, (5), 44.
uste eztala, (5), 78.
kafe-esnia, (5), 39.
bire erdiyan, (5), 55.

– **EI**

Hitz barruan gertatzen denaz bestaldera, diptongatzea ez da beharrezkoa:

ere ipurdi (= heure), (5), 15.
asarre izugarriyak, (8), 19.
gure ijituak, (6), 26.
gure inguruban, (6), 81.

baina:

beste iru, (3), 42.

– **EU**

Gauza bera: hiato gerta daiteke, usuenik hau gainera; baina dipton-gatzea posible delarik:

zure ustiak, (5), 23.
nere ustetan, (5), 28.
beste urte bat, (5), 41.

baina:

nere ustez, (3), 63.

— [OI]

Gauza bera:

lengo istori, (5), 24.
arro ibilli, (5), 27.
ondo ikasten, (5), 70.

1.4. 2. Hots, eskuin aldean klitiko bat dagoela soma dezakegunean, joera nagusia gailentzen da; eta *diptongoa dugu* normalean. Hauxe da aditz laguntzailearekiko kasua:

emate'izkizut, (5), 25.
deklaratzte'itut, (5), 34.
ibil'ituzte, (5), 35; baina
meretz'ituzte, (5), 51; baina

garbi irabazi, (6), 85.
komeri izugarriyak, (8), 33.

de.si.o'i.zu.tet, (5), 19.
egingo'itugu, (5), 26.
ikusiko'ira, (4), 30.
sendatuko'izka, (5), 32.
bi.al.du.ko'u.kar.ta, (6), 99.

billatze'uela, (5), 71.
arrapatze'ute, (5), 136.
deskuidatu'ida, (5), 20 (= deskuidatu dira).
Presentatu'ian, (5), 51 (= presentatu diran).

is.ti.ma.tu.ko'u, (5), 110.

ez.ti.yo'u.bi.ar, (5), 67.
galdu'itugula, (5), 31.
borratu'itugu, (5) 22.

1.4. 3. Adierazgarriak dira oso grafia batzu, bi bokaleen laburketa-ren seinale seguru baitira:

txulet aundiyakin, 138; baina *txuleta aundiya*, 138, baita neurriak erakusten dituen bitasunak:

kopa aundi eder ori, (7), 85.
 baina *kopa aundi*, (4), 85, 86.
txalopa ta arraun, (5), 89;
 baina *txalopa aundiyan*, (4), 89.

bentaja aundiyan, (5), 70.
bi bandera aundi, (5), 76, 79.

Berriro ere, hiatoari eustea ala diptongatzea libre agertzen da, hitz barruan laburketa derrigorrezkoa delarik.

1.5. Erakusleen arazoa

Nafarrera garaian bezala, erakusleek izenarekin unitate bakar bat egiten ote duten pentsa liteke. Kasu horretan bokale bakarra genuke *aa* eta *oo* kasuetan.

Hots, ez da horrelakorik gertatzen; eta erakusleak unitate berezia sortzen duela pentsa daiteke.

aa

lastima auxe, (5), 24 (nahiz behin: *marka au*, (3), 27).
motibo ori, (5), 19, 32.
Oriyo ontan, (5), 21, 23, 31, 39, 70, 76.
Oriyo ortan, (5), 28.
funtziyo ori, (5), 56.
bertso onekin, (5), 59.
deseo ori, (5), 129.
bertso oriyek, (5), 32.
triñero ortan, (5), 51.
kaso orretan, (5), 71, nahiz bakanka laburketa aurki badaiteke ere:
funtziyo ortan, (4), 45.
funtziyo ori, (4), 87. (“funtziy’ori” idatzita).

Normalean, hitz batez, hiatoa dugu, eta bi silaba.

1.6. Beste kasu bitxi batzu

– *iru*

Izenarekin bat ote doan pentsa liteke (Ultzaman bezala):

iru illabete, (5), 114 (/wi/ diptongoaz).
iru itxasontzi, (5), 111.

– /a/ren erorketa

Fenomeno hau oso normala da gipuzkeraz; eta partitiboa ere iritsi du: *faltik*, *markik*, etab.

Gauza bera aurkitzen da Txankarengan.

Baina batez ere *mailegu paroxitonoetan* agertzen da garbiki: *kopa, txuleta, txalopa, bandera, marka, bentaja, biba, bandera, kuadrilla, paliza, burla, azaña, karroza, postura, tamaña, dama, korrida.*

Euskal hitz bakan batzutan ere gertatzen da: *gauza, gora, estropa*, paroxitonoak. Hauekin batera era *beste*, markatua itxura denez.

Kasu horietan guztietan diptongo bat sortzen da *e* eta *o*-ren elkarrekin; eta *a*-ren ezkerretan, ezabatu egiten da:

amaika orlako, (5), 32.

postura ortako, (5), 35.

txalupa ona, (4), 62.

txuleta onak, (4) 23.

sei bandera eder, (5), 27.

kuadrilla ederra, (5), 49.

paliza ederra, (5), 49.

Azpirarragarria izan daiteke, agian, bikote horietan adjektibo dela eskuin aldeko elemendua.

2. MUGAGABEAREN ERABILPENAZ

2.1. Deklinabidea

Egia ote da mugagabe zaharrari, mugagabe bikoitza nagusitu zaiola, eta denborazko hitzetan singularrari dagozkion atzizkiak gailendu zaizkiola?

2.1. 1. Denborazkoetan

Ikus dezagun Txankaren ilara:

urte askuan, 19.

urte askuan, 116.

sei urtian, 22.

bi eguneko birian, 137.

bi urteko kartzela, 105.

urte askotan, 46.

urte askotan, 78.

sei urtetan, 38.

iru urtetan, 38.

bi egunetan, 42.

sei igandetan, 59.

iru urtetan, 85.

bi egunetan, 66.

Espero zitezkeen formak dira nagusi, berrikuntza esan ohi den baino gutxiago hedatua delarik.

Berex jarri behar dira bi hauek:

iru bat egunian, 133.

amar bat egunian, 139.

2.1. 2. Lekuzkoetan

Daudenak sail normalekoak dira:

- toki askotan*, 40.
erri askotako arraunlariyak, 43.
erri askotatik, 55.
sei erritako arraunlariyak, 89.
sei erritako premiyorikan, 90.

2.2. Erakusleekiko komunztadura

Mugagabea multzokaria denez, normalean singularra espero daiteke: gogora dezagun Ebanjelio zaharren itzulpena, “*hiru egun hartan ehortzia*”.

Txankaren hizkeran ere horixe da modu nagusia:

- bi urte ortan*, 35.
sei urte ontan, 48.

Behin agertzen da hau:

- sei urte oitan*, 35.

Baina orrialde berean “*bi urte ortan*” dagoenez, /r/ bat gaizki irakurri ote den pentsa daiteke.

2.3. “Bi arraunian”

Honetan arraun-joko berezi baten aurrean gaude:

- bi arraunian Sarasua da nagusi*, 59.
bi arraunian Oriyon dago
Guipuzkoako txapela, 45.

Mugagabea zertan agerturik ez dago kasu horretan.

2.4. Mugagabea eta aditza

2.4. 1. Mugagabe egiazkoa eta aditza

Singularra espero daiteke, eta singularra aurkitzen da Txankaren hizkeran:

- askok zeukan inbiriya*, 89.
kontuba pranko orrek ekarri dit neri, 95.
buru-austia pranko pasa zun lenbizi, 99.
zenbaitek morroi ona nai luke debalde, 103.
jendia pranko bazan, 120.
askok dakiña, 136.
kuadrilla asko aurrera zaie pasatu, 44.
ipurdikua artu du prankok, 55.

gizon askori aditu diyot, 63.
jendia frankok ikusi zuan, 63.
askori etzaio ajola, 65.
zenbait gizonek beti izaten du, 65.
egun orretan askok egin du, 66.
jendia pranko arritu da, 69.
jendia prankok pasiatu du, 73.
askok du letuba, 84.
kontu oiek aditu dizkagu askori, 86.
kanpotarra're asko zitzaigun juntatu, 86.
makiña bat persona ibilli da dantzan, 87.

Hauen ondoan salbuespen gisa agertzen dira pluralezko batzu:

gizon askotxo gertatzen dira, 19.
arrazoi asko jarri dituzte, 34.
zenbat tresabi dauzkagun, 39.
ikusten dira zenbait arraunlari, 82.
askok irabazia zeukaten buruban, 81.

Oso bitxia da behin agertzen den forma:

bedeinkazio eder askoa / guztiok artu genduan, 93.

Singularra nominatiboraino ere heldu dela dirudi.

2.4. 2. Zenbakariak eta aditza

Teorian, eta euskara zaharrean dudarik gabe (ikus *Refranes y Sentencias* honi buruz) singularra espero bazitekeen ere, askok arkaikotzat jotzen du modu hori.

Hots, Txankaren bertsoak aztertuz, mugagabe zaharra bizirik dagoela ikusten da; eta pluralezko komunztadura ez dagoela osoki nagusiturik:

eraman dute sei bandera, 48.
Sarasu orrek kendu diote / aurtan ere bi bandera, 50.

Hala ere, plurala agertzen da maizenik:

ikusi dira amalau mutill, 23.
jarri biar dizket itz-pi, 38. (izpi hobe legoke).
dauzkagu zazpi, 38.
dauzkagu amabost bandera, 44.
iru bandera sartu dituzte, 49.
amar milla duro / badauzka berekin, 98.
abitzerako ditu / bost traje erosi, 99.
bi urte pasa zituben, 113.
iru illabete... pasa zitun, 114.